

Fernando Mendizabal Mujika (1934-2011)

INTXAUSTI, Joseba
Onorezko euskaltzaina

Fernando Mendizabal Mujika Euskaltzaindiko urgazlea¹ Zaldibian jaio zen, 1934ko abenduaren 15ean², eta Donostian hil 2011ko martxoaren 22an, hainbat urtetako gaixoaldi baten ondorioz. Zaldibiako Martin-arotzaeneko (gaurko Zubiondon) Mendizabal-Mujika sendiko umea zen Fernando; baina berau jaio eta laster, 1936ko udaberrian, Ordiziara aldatu ziren guraso eta haurrak. Geroztik han bizi izan zen Fernando, hamaika urte zituela Arantzazurako bidea hartu zuen arte (1946).

Bizitzako zertzeladak

Fernando Mendizabalen gurasoak Zaldibian jaioak ziren, Jose Luis Mendizabal Etxeberria aita (1898-1988) Arrue baserrian, eta ama, Juana Antonia Mujika Aierbe (1908-1994), Azpikoetxeko baserrian. Zaldibian bertan ezkondu ziren, 1928ko urriaren 22an. Aitak Beasaingo Fabrika Handian (CAF) egin zuen lan, eta amak nahikoa lanik izan zuen hamalau

¹ Euskaltzaindiko urgazle-izendapena 1964ko urriaren 30koa da. *Euskera*. VIII-IX, 1964, 184. Egun hartako izendatuen artean gure oroimen historikoan geratu zaizkigun izen gogoangarriak zeuden: Julene Azpeitia, J. B. Merino Urrutia, J. Kerexeta, B. Gandiaga, J. Basterretxea «Oskilla-so», M.-J. Minaberry, A. Zatarain, R. Arregi, K. Santamaria, G. López de Gereñu, etab.

² Zaldibiako Erregistro Zibila: XII. liburua, 232. folioa.

seme-alaba mundura ekarri eta bizirik izan zituenak hazi, hezi eta eskutik eramaten³.

Fernando familiako bosgarren haurra zen; baina, ondorengo senideak jaio aurretik, zaharrago bi bakarrik ezagutu zituen bizirik (Joxe eta Martin). Denen artean sei senide ditugu bizirik gaur egun (Joxe, Martin, Maria Luisa, Maria Belen, Maria Dolores eta Joan). Fernandok familia zabal ederra ezagutu du, beraz.

Aitak ardura berezia izan zuen haurrak eskola egokietara eramateko. Hain zuzen, Zaldibiatik Ordiziara herriz aldatzeko arrazoia, jada jaiota zeuden eta agian jaioko ziren seme-alabentzat eskola-aukera hobea segurtatzeko gogoia izan zen⁴. Fernando, oso txikirik, Ordizian Karitateko Alaben eskolatxora joaten hasi zen; laster, Hídalgotarren (Antonio eta Gumersindo) eskola partikularrean sartu zuten gurasoek, baina, eskola ona izanda ere (halakoaren sona eta izana zituen, nonbait), ez zitzaion gertatu Fernandori eskola berria batere atsegina; zereginak berehala bukatuta, lagunak nahastu zituela-eta, zigortuta egon behar izan zuen nahiko sarritan. Halako batean, egoera ezin eramana zela-eta, eskolaz aldatzeko eskatu zion aitari, eta horrela hasi zen Beasaingo lasalletarrenean.

1946ko irailaren 15ean, Martin anaiarekin batera, Arantzazura joan zen, bertako Kolegiara fraidegai gisa (Seminariora)⁵, eta ordutik aurrera frantziskotarren artean egin zituen bere ikasketa gehienak, betiere anaia ikasturte bereko lagun zuela, apaiz egin zen arte. Frantziskotarren artean, Euskal Herriko Probintzian ohikoa izan zen ibilbidea jarraitu zuen: Arantzazu (1946-

³ Hona seme-alaben izenak eta jaiotza-heriotzen urteak: Joxe (1929...), Joxepa (1931-1931), Roman (1932-1932), Martin (1933...), Fernando (1934-2011), Maria Pilar (1936-1936), Maria Luisa (1939...), Maria Belen (1942...), Maria Kruz (1945-1945), Maria Ines (1945-1945), Maria Karmen (1946-1947), Demetrio (1948-1948), Maria Dolores (1950...), Joan (1952...).

⁴ Belen alabaren lekukotasuna.

⁵ Sendiak bazuen lehendik frantziskotarrekin zerikusirik, amaren osaba Bartolome Aierbe Arantzazuko Anaia Laikoa baitzen, sukaldaria (†1973); gero, Seminarioko lagunek esaten zutenenez, Fernando eta Martini ongi etorri zitzaizkien Arantzazun frai Bartolo birrosabaren ofizioa... Bestalde, aski urte geroago, Joan anaia gazteena ere Arantzazura joan zen fraidegaitarako, eta hiru urte egin zituen Santutegiko Ikastetxean (1963-1966), hain zuzen Fernando anaia zaharragoa irakasle zuela.

1949), Forua (1949-1951), Zarautz (1951-1952), Erriberri (1952-1955) eta berriro Arantzazun (1955-1959) burutu zituen apaizetarako prestakuntza-urteak. 1958an egin zuen bere profesia nagusia eta 1959ko uztailearen 12an apaiztu zen, Karlos Anasagasti Gotzain bermeotar-boliviarraren eskutik.

Hurrengo hogeita bat urteetan frantziskotarra eta apaiza izan zen, 1979a arte. 1982an ezkondu zen, Maritxu Aiertza Lertxundi hernaniarrarekin. Maritxu emaztea Irakaslea izan da Donostiako Sto. Tomas Lizeoan lehenengo (1970-1979) eta ondoren Irakasle-Eskolan (EHU), Didaktika eta Eskola-Antolakuntza sailean (1979-2009). Alaba bat izan dute Fernando eta Maritxuk, Leire Mendizabal Aiertza, 1984an jaioa.

Fraide zelarik eta gero, euskal lanbidean ibili izan da Fernando Mendizabal, berehala ikusiko dugunaren arabera, bere anaia Martin (j. 1933) apaiz-zereginetan eta historiako ikerlanetan dabilen bitartean.

Lau epe nagusitan bana daiteke apaiztu ondoko Fernandoren bizialdia: a) Irakasle izan zenekoa (1959-1968), b) Alemaniako bizialdia (1968-1978), c) UZEIn emandako lan-urteak (1979-1997), d) Erretiroa eta gaixoaldi luzea (1997-2011).

Apaiz egin eta lehenengo urteak frantziskotarren bi Seminario Txikietan eman zituen: hasteko Arantzazun (1959-1960), ondoren Foruan bi urtez (1959-1962), eta berriz ere Arantzazun (1964-1968). Hemen irakasle-lanak utzi zizkion tarteez baliaturik, frantsesa lantzeko aukera izan zuen Frantziako Arcachon-en; dena den, Arantzazuko Seminario berria irekitzean utzi zuen Fernandok hango zeregina, eta Alemaniara joan zen, han hamarkada osoa emateko (1968)⁶.

Werl-eko santutegian (Westfalia) egon zen alemana ikasten, denbora batez, aipatutako diozesiko baimenak lortu ahal izan zituen arte (1968-06-

⁶ Alemaniako datak finkatzeko familiako artxiboan dauden ondoko agiriak ditut aurrean: Paderborn-eko artzapezpikuak aitoren-entzule eta prediku-baimena 1968ko ekainaren 6an eman zion, diozesi hartarako («Fernando Mendizabal Mugica, p. t. in Werl / Guestf. Datum Paderbornae, die 6 m. jujii 1968», dio agiriak. L. Jaeger kardinalak sinatua da). Dusseldorf-eko Espainiaren Konsulatu Nagusiak emandako ziurtagiriak dienez (1978-urria-23), bertan inskribatuta egon zen 1970-07-09tik aurrera, azken data horretara arte.

06), eta gero, bertako apaiz-lanetan. Luzaroko gogoeta-aldia izan zuen hura, eta antropologiaz biziki interesatu zen garaia⁷. Tarteren bat ere izan zuen Penintsulatik Alemaniara zihoazen etorkinentzat lan egiteko, Attendorn-eko herrian⁸. Alemaniatik itzulita (1978), Tolosan egon zen bizitzen hilabete batzuetan, eta 1979an hasi lanean UZEIN, 1980ko udazkenetik aurrera bertan langile finko gisara jarduteko⁹.

UZEIkoa eta bertatik egindako lan-jarduna izan da, Fernando Mendizabalen euskal lan-aldirik luzeena (1979-1997), molde ezberdinetako lanetan: sorkuntza terminologikoa laguntzen, testu berezituak bideratu eta ontzen, legegizonekin hizkera juridikoa sortu eta finkatzen, itzulpen berezituak egiten, etab. Bakarkako zereginetan bezainbat ibili da talde-lanetan. Hala ere, jendarteko ekitaldietan baino jarduera isil eta diskretuan eman du Mendizabalek bitzita gehiena.

Fernando Mendizabal-en euskal lana

Artean ikasle zelarik ekin zion Mendizabalek euskarazko testuak prestatzeari, Nafarroako Erriberrin Filosofia ikasten ari zela. Bertako *Gure Izarra* aldizkarian eman zituen jendaurrera eramandako lehen idazlanak (1952-1955).

Idatz-kontutan, 1956ko urtea erabakigarria gertatu zitzaion Fernando gazteari, hain zuzen Euskaltzaindiak gerra-ostean egindako lehen Batzar irekiaren lekuko izan zen Arantzazun, eta orduan eta bertan *Jakin* aldizkaria sortzean parte hartu zuen, batez ere testuen idazketa zaindu eta orraztuz. Aldi berean, idaz-lanketa propioan ere jarraitu zuen, aldizkariko aurkibidean ikus daitekeenez (1956-1964)¹⁰. Urte hartan bertan, herrikidea zuen Lardizabal-en euskarari buruz eman zuen bere idazlana *Euskera* aldizka-

⁷ Antropologiarena, Joxe Azurmendiren oharra dut.

⁸ Aita Roberto Linkel-en albistea.

⁹ Lan-hitzarmena Fernandok eta biok sinatu genuen 1980 urriaren 20an. (Familiako artxiboa).

¹⁰ *Jakin*, 116-117, 2000, 82-83. Hogeita bat idazlan zenbatu dizkiot: *Jakin*. 116-117. zenb., *Aurkibideak*, 82-83. Eliz gaiak eta euskararekikoak izan ziren horiek, bat izan ezik; denak 1956-1960. urteetakoak.

rian¹¹. Lankidetzeta haiek ez zioten kendu zenbait itzulpen eginez joateko aukerarik, eta '50eko hamarkadako PPC deituriko Madrileko liburuxkatan (1957-1959) baditu bi , berak euskaraz jarriak¹².

Frantziskotarren Seminarioetan, 1950eko urteak izan ziren euskarari leku hoberik emateko garaiak, apurka abiarazitako ikas-egitasmo berrituen barruan. Hori horrela, 1959an Probintzia erlijiosoaren mendeurrena ospatzeko hainbat Kongresu egin zen Arantzazun; horien artean bat, Irakaskuntzari zegokiona, eta tartean bi hitzaldi egon ziren euskarari zegozkionak: lehenengoa, B. Gandiagarena, hitzaldi dokumentatua eta gerora oihartzunik izan duena¹³; bigarrena, Mendizabal-ena, «El problema de la enseñanza del euskera en nuestra carrera», zioena¹⁴. Eliz munduan hizkuntzaren estatusari zor zitzaion antolakuntza berrikusi beharra azpimarratu zuen Mendizabal-ek.

Apaiz-ikasketak amaitzearekin bateratsu, erronka handi samar bati erantzun behar izan zion Mendizabalek: Nola eman euskaraz, hizkera eguneratua eta jatorrizko grekoaren arabera, Ebanjelioen itzulpena? Egiteko horretarako bi zuzendari lagun elkartu ziren, Fernando bera eta Jose Goitia (1925-1995), zientzia biblikoetan doktorea eta orduan Arantzazun eta gero Deustuko Unibertsitatean Irakaslea.

Lana bizkortzeko, lehen itzulpen-zirriborroa Santutegiko beste hamaika gazteren laguntzarekin egin zen, eta euskararen orrazketa eta batasuna Fernandok segurtatu zituen, Goitiaren arduraean joan ziren «gainbegiratu kritikua, sarrerak eta oharrak», bien artean jatorrizko testuarekiko jatortasuna eta hizkera balioa bermatzen zituztela. Liburu txikia baina edizio handia egin zen, eta etxez etxe ibili ziren saltzen fraide gazteak (1961)¹⁵.

¹¹ MENDIZABAL, F., 1956, Lardizabal'en euskeraz zertxobait. *Euskera*. I, 1956, 183-205.

¹² Maria. Zarautz: Eukalerriko Iruigarren Ordena. *Tan Tan lapurretan*. Zarautz: Euskalerriko Iruigarren Ordena.

¹³ GANDIAGA, B., 1961, «El euskera en el Colegio Seráfico y en la carrera», in *Cantabria Franciscana*. XVI, 1961, 245-261.

¹⁴ MENDIZABAL, F., 1961, «El problema de la enseñanza del euskera en nuestra carrera», in *Cantabria Franciscana*. XVI, 1961, 299-303.

¹⁵ *Lau Ebanjelioak*. Arantzazu-ko prailleek egiña. Zarautz: Itxaropena. [Arantzazu: EFA]. 1961.

Zaletasunez eta berez zekarren ezagutzaz baliatuta, laster heldu zion urte dezentetan bizirik mantendu zituen euskararen didaktikari buruzko kezka eta jarduna. Hizkuntzaren irakaskuntzak hain lanabes gutxi zuen garaietan (1950-1960. etako hamarkadez ari naiz, noski), irakasle-lana eramatea suertatu zitzaiolako ere bai, eskola-gramatikak sortzen ahalegindu zen. Azpimarratu behar da, hortaz, Mendizabal ez zela sekula ase ahozko irakasle izatearekin soilik, beretzat eta besterentzat tresna idatziak ere sortzen saiatu zela, lehenengo multikopiaz baliatzen zela (1959?)¹⁶ eta ondoren argitalpen inprimatuak kaleratuz, hasieran gipuzkeraz (1968)¹⁷ eta gero batuaren asmoa gogoan hartuta (1972)¹⁸. Urte horietan bertan egon zen Mendizabalek euskararen batasun-bidean gidari-lana ere egin zezakeela pentsatu zuenik¹⁹.

1970eko hamarkadan, Alemanian bizi izanda ere, ez zuen baztertu euskal lanetan parte hartzea. Berezi bi lan aipa daitezke horren agergarri: *Kristau Bidea*, 1975ean kaleratu zen libururako egindako ekarpena eta *Natur Zientziak. Hiztegia* (1976) argitalpenean egin zuena (testu orrazketa eta terminologia). Lehenengo haren edizioa Paulo Agirrebaltzategik zuzendu zuen, eta Dionisio Amundarain izan zen zuzentzailea; Fernandoren lana liburu mardul hartako (597 or.) testu biblikoak euskaraz ematea izan zen²⁰.

Aipatutako hiztegiak zerbait gehitu beharra dago hemen. Aurreko urteetatik *Jakin*-en alor humanistikoetan genearren eskarmentu terminologiko nekosoan ikusitakoari bira emateko hautatu zen hurrengo pausotarako Na-

¹⁶ MENDIZABAL, F., c. 1959, *Euskaldunentzat oiñarrizko gramatika euskeraz (gipuzkeraz nagusienik)*. Arantzazu'ko Seminarioko mutikoentzat eratu. (Pro manuscripto).

¹⁷ MENDIZABAL, F., 1968, *Euskaldunentzat oiñarrizko gramatika euskeraz (gipuzkoeraz nagusienik)*. Euskaltzaindiaren urre-eztaietan eta Arantzazu'ko Amaren bosteun urte betetzean. Arantzazu: EFA.

¹⁸ MENDIZABAL, F., 1972, *Gramatika txikia euskeraz*. Arantzazu: EFA. Artikuluren bat ere idatzi zuen batuaren arazoaz: *Zeruko Argia*. 367, 1970, 3.

¹⁹ J. L. Lizundiak pasatu dizkidan Gerediagako paperetan ageri da hori: Gerediaga Elkarrean Euskal Idazleen Ermuko Bileraren prestakuntza abiaraztean hiru gai eta hizlari aurre-hautatu zituen: K. Mitxelena «Euskal idazleak eta batasuna» aztergaia gidatzeko, F. Mendizabal «Batasunerako bideak» arakatzeko eta J. San Martin «Euskal idazleen arteko harremanak» gaia aurkezteko. Gero, lehenengo egitarau hura ezerezean geratu zen, azken buruan hizlariak eta gaiak bestelakoak izan baitziren (ik. *Jakin*, 31-32, 1968, 14-74).

²⁰ NIMEGAKO KATEKESI INSTITUTUA, 1975, *Kristau Bidea*. Arantzazu: Jakin/EFA.

tur Zientzien alorra. Zereginari eman zitzaion lan-antolamenduaren barruan (P. Agirrebaltzategi izan zen editore bateratzaile, eta Arantzadi Elkarteko J. Altuna eta M. Aizpurua zuzendari); Mendizabal izan zen euskararen ardura eramane zuena (itzulpenak eginez, noski, baina baita lehen termino-propo- samena aurkeztu eta berorren eztabaida-taldean jardunez)²¹. Lan txukuna eta aitzindaria izan zen berau, nik uste²². Alemanian eta handik hona joan-etorrian burutu zuen Fernandok bere eginkizuna.

Euskal Herrira itzulita, 1978tik aitzina, hemengo euskal taldeetan lan egin eta laguntzen ibili zen Mendizabal, lehenik UZEIn bertan eta bertatik beste zenbait talde eta lekutan. Hasteko, aipatu beharra dago erakunde honetako hiztegi-talde Mendizabal-en ekarria, behin eta berriz ageri zaiguna, Enpresa, Banka, Arte, Filosofia, Administrazioa, Hirigintza, Zuzenbidea, Kirola edo Hirigintza hiztegi-talde parte hartzen zuela. Mendizabalen proposamen terminologikoetatik ez dira gutxi jada hizkuntza berezitu eta arrun- tera ere pasatu direnak.

Testu eta terminoak argitalpenetarako moldatzen ez ezik taldean egokitu zitzaizkion gazteagoi bere euskarazko ezagutza pasatzen asmatu zuen²³. Fernandoren patxada onak asko lagundu zigun, UZEiko lan-antolamenduan premia-ko zen talde-lanean jardun eta elkarri irizpide, iritzi eta ideiak el- karrizketa-giroan aurkezteko. Zekiena eskaintzen eskuzabala izan zen beti.

UZEItik, UEUko Ikastaroetan eta luzaroago Euskal Herriko Unibertsita- tean (EHU) lagundu zuen: Donostiako Zuzenbide Fakultatean, adibidez, ber- tan sortutako Euskal Mintegian parte hartuz eta euskarazko hizkera juridi- koari bidea samurtuz. Antton Elosegik eman du ataza horren berri²⁴. Euskara Juridikoaren hautazko ikasgaian irakaslea izan zen. Beronen hitze- tan esateko, «Fernandok irakatsi zigun, niri eta euskal jurista emankor as- kori, hizkera juridikoak jantzia, zehatza eta ulerkorra izan behar zuela, eta

²¹ ALTUNA, J. ETA ARANTZADI ELKARTEKOAK, 1976, *Natur Zientziak. Hiztegia*. Arantzazu: Jakin/EFA.

²² Hitzaurre luze eta argian eman zuen aditzera P. Agirrebaltzategik nola egin zen hiztegia. Ik Altuna 1976: XVII-LII).

²³ Jabier Agirre medikuaren eta Joxe Joan Gz. de Txabarriren testigantzak.

²⁴ <http://www.eizie.org/News/1300991401>

hori, klasikoek erakutsitako ildoetatik batere aldendu gabe lor zitekeela, aurreiritziak eta «abarkak jantzita hitz egiteko euskara» gainditzen ikasten bagenuen»²⁵.

Ez zen falta izan, gainera, larunbatero bildu ohi zen Administrazio-taldea, euskarazko arlokoetan Mendizabal gidari zuela. Han ere klasikoei, zegokien lekua ematen zien, X. Iruretagoiena haren lankide eta adiskideak gogorarazi digunaren arabera²⁶:

«[Klasikoen] testu haiek barru-barruko zukua ateratzeraino aztertu eta gozaten zituen, eta berak eta bestek egin beharreko lanetan aplikatzen, hizkuntza eredu bihurtuta. Berak erakutsi zigun barrutik entzun behar zela euskara: “Barrutik entzun behar diok euskarari, barruan dauka txikitako memoria hari adi jarrita”. Euskara bizi zuen barruan, eta barruan zuen euskara bizia. Eta bizitzeko balio zuen euskara egin nahi izaten zuen».

Fernando itzulpen ederren egilea izan da, batez ere alemanieratik egin dakoetan: Filosofian, G. W. Leibniz-en *Metafisikako diskurtsoa*²⁷ euskaratu zuen, eta M. Duchet-i *Voltaire-ren antropologia*²⁸ lana ekarri zion euskarara. Filosofia eta Soziologiaren arrastoan daude beste argitalpen hauek: Kant-en *Prolegomenoak* (itzultzailea) edo Durkheim-eren *Hezkuntza eta Soziologia* (berrikuslea), biak ere «Klasikoak» liburu-sail handiaren barruan emanak²⁹. Eta literaturatik ere ez da falta izan, eskura legokeen zerbait (H. Hesse)³⁰.

²⁵ Antton Elozegi, ibidem.

²⁶ *Berba* (UZEI): <http://uzei.com/antbuspre.asp?cod=3327&nombre=3327&sesion=14> (2011-03-31).

²⁷ LEIBNIZ, G. W., 1997, *Metafisikako diskurtsoa*. Donostia: Jakin. (Joxe Azurmendirekin batera itzultakoa).

²⁸ DUCHET, M., 1997, *Voltaire-ren antropologia*, in: VARI, 1997, *Gizakiaren Filosofia Ilustratutik antropologia filosofikora*. Donostia: Jakin. 17-61.

²⁹ KANT, E., 1995, *Prolegomenoak*, *Zientzia bezala agertu nahi duen etorkizuneko edozein metafisikarentzat*. Bilbo: Klasikoak. DURKHEIM, E. (1993). *Hezkuntza eta Soziologia*. Bilbo: Klasikoak. (Itzulpena P. Iztueta-rena da).

³⁰ Hermann Hesse (1977-1962) idazle alemaniar-suitzarren *Siddharta* (1922), adibidez, itzulita utzitakoa, eta une honetan ezin aurkiturik gabiltzana.

Mendizabal-en itzulpen-lanen artean jarri behar da, gainera, beste zenbait lagunekin burututako Arabako nekazal arkitekturari buruzko euskarazko edizioa, Victorino Palacios-ek prestatu zuena: *Arabako Nekazal Arkitekturaren Inbentarioa (1981-1994)*³¹.

Azken gaixoaldiak zortzi-hamar urteko lana eragotzi zion arren, baliozkoa izan da egindakoa, eta batez ere inguruko lankideengan ereindakoa, eta lagun askorengan emaitza isila ematen jarraitzen duena.

Bego bizirik goian eta gure artean euskal langile saiatu honen oroitzapena³².

³¹ PALACIOS MENDOZA, V., 1981-1994, *Inventario de Arquitectura Rural Alavesa – Arabako Nekazal Arkitekturaren Inbentarioa*. Vitoria-Gasteiz : Diputación Foral de Álava, 1994. (7 tomotan 14 libk.). II-VI. tomoetan parte hartu zuen Mendizabalek). Ik. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/44/44519521.pdf>

³² Nire eskerrak albiste hauek jasotzen lagundu didatenei: lehenik, Maritxu Aiartzari (sendiko xehetasunak eta hainbat agiri) eta Joseba Etxeberriari (Arantzazuko albisteak, eta *Gure Izarra*), eta horiekin batera Jabier Agirre, Xanti Iruretagoiena eta Antton Elosegiri (UZEiko lanak), eta Joxe Azurmendi eta Roberto Linkel-i (Alemaniako notiziak). Mila esker guztioi.